

ARRUATZU' TIK IRUÑA' RA

(Batua ta euskalkiak)

Arruatzu'ko talde batek egin eban dei oraintsu EUSKERAZAIN-TZA'ra eta eskari bat egin eben: Euskera ikasteko bideak artzerakoan, ez dabela jakiten batua ala euskalkiren bat ikasi eta gai orre-ri buruz argibide batzuk nai ebezala.

Gu gertu gengozala erantzun geuntsen, baiña eskari bardiña egin eben Euskaltzaindi'ra be eta erantzuna be bardiña izan zan.

Arruatzu'n bertan izango zala batzar au uste gendun, baiña Arruatzu'ko gazte bat da Iruña'ko Uri-Ikastetxe Nagusian edo "Publikoa"n, euske-rearen arduradun eta an izan mai-ingurua.

IRUÑA'KO URI-IKASTETXE NAGUSIAN

Abenduaren lenengo egunean urreratu giñan ba Iruña'ko Uri-Ikastetxe Nagusira. Euskerazain-tza'tik Manu Oñatibia, Asier Etxaburua eta idaz-lan au izenpetzen dauana joan giñan eta Euskal-tzaindi'tik Patxi Altuna, Miren Azkarate eta Xa-bier Amuritza.

Areto eder baten alkartu giñan eta Arruazu'ko seme dan gaztea erdian genduala jarri giñan maian sei-rok. Eun entzule gazte genkazan au-rréan.

Gure maiaren barrenean itaun bi irakurri leike-zan, biak egokiak: Bearrezkoa da euskera batua? Ba al dago gataskarik batua eta euskalkien ar-tean?

Ordu bi igaro genduzan batzar edo mai-inguru aretan eta eziña da ordu bitan esandako gauzak emen agertzea, baiña aundi-maundiak beintzak agertuko doguz.

IDAZKEREAREN ARAZOA

Manu Oñatibia izan zan lenengo itz egin ebana. Onék Ortografía edo idazkerearen arazoa atera eban: Aurreko gizaldietan izan dan batasunik eza, Arana'tar Sabin'ek agertu eban idazkera-bidea,

Euskaltzaindiak lan orreri egin eutsan onartzea, 1968n. urtearen aurreko batzarrak eta Arantzazu'ko batzar ospetsua, 1978'an Bergara'n izadako batzar Nagusia eta ortik sortu zan Euskerazaintza Euskeraren Akademi barria.

Gero txandaka guztiok berba egin gendun, bai-ña, ez luzatzeko, gaiak aitatuko dodaz.

BATUA BEARREZKOA?

Patxi altuna'k esan eban euskera batua bearrez-koa ez dala, iñok ez dauala esaten. Mai aretan iñor ba'lego baturik ez dala bear diñoanik, jaso dagiala besoa.

Beingoan ikusi al izan ziran iru beso gora jaso-ta. Zeintzurenak ziran esan-bearrik ez dago.

Gero Patxi'k gaiñeratu eban berak gogoan dau-kana ez dala gaurko batu au, zelako edo alako ba-tu bat baiño.

GATASKA? ALA KALTEA?

Patxi altuna'k aurrean geunkan itaunari zuzen-zunenean erantzun nai izan eutson: Batua eta euskalkien artean gataskarik ete egoan.

Erantzuna argi emon eban: Bai, ba-dago gatas-ka, eta zer? Gataska sortu dalako atzera egin bear ete dogu?

Erantzun oneri buruz, Martin Olazar'ek egin eban berba: Gataska badago eta zer? esan dau Pa-txi'k. Baiña arazoa ez da gataskarena, arazoa da batuak kalte aundia egiten dautsela euskalkiai. Gure bizkaiera kontuan dogula, etxeetan guraso ta seme-alabak alkar ezin dira ulertu, ikastoletan euskerea ikasten eta kanpoan erderaz berba egin, ikus-irratian batua baiño ez da entzuten eta gero ez dago etxean alkar-izketarako erreztaswnik... Kalte ikaragarria egin dautso Batuak Bizkai'ko euskereari eta ilteko arriskuan jarri dau gure .eus.-kalkia. Orain esango ete dau Patxi'k: Bai, Biz-

kai'ko euskereari kalte egin dautso batuak, eta zer? Ez dot uste olakorik esango dauanik!

Miren Azkarate'k erantzun eban labur, kalte orreik ba' dira be, ez dala batuaren erruz.

BATUA TA ERDEL ITZAK

Xabier Amuritza'k esan eban gero, berak ez leukela nai ezegaitik be euskerea sub-español edo sub-frantzes biurtzea. Gaur ikusten dan erdel-itzak artzeko erreztasuna eukan gogoan eta naikoa luzaro berba egin eban arazo oneri buruz.

Asier Etxaburua'k emon eban erantzuna: Batua bera zala orretarako bidea artu dauana, eta berba batzuk aitatu ebazan, "independentzia" esaterako, eta Europa'ko beste izkuntzetan jazoten dana kon-tuan arturik, argi azaldu eban jokera orren bide okerra. Izan be Asier' ek Europa'ko izkuntzak ikasten diardu.

Barriro erantzun eban labur Miren'ek, olako itzak euskerara sartu ba'dira ez dala ori batuaren eragiña, idazle batzurena baiño.

IKASTETXE NAGUSIAN ALA ERRIAN?

Martin'ek egin eban urrengo itzaldi labur bat: Euskerea aspaldion Ikastetxe Nagusiaren maillan aurrera doala entzun dot eta orrek auxe dakarts burura: Latiña eundak urteetan erabilli izan da Ikastetxe Nagusietan, erria beste bide batetik, erromantzeen bidetik, joiala. Baiña azkenean latiña il egin zan eta erromantzeak bizi dira. Orixe jazoko jako gure euskereari, ikastetxe nagusietan batua erabilliko da, baiña erriak euskalkiak izango ditu bere izkera, eta euskalkiak galtzen ba'dira ikastetxe nagusietako batua be galdu egingo da urteen joanean.

Latiña ez dala erromantzeetan bizi dala esan eban. Patxi'k eta or eztabaidea sortu zan, erriko esanen eta izkuntzalarienen artean.

EUSKALKIAK ILGO BA'LITZAZ...I

Ez noa aitatu barik izten beste puntutxu bat.'

Patxi Altuna'k onako au esan eban: Baldintza pean diñot, euskalkiak ilgo ba'litzaz be, euskereak

bizirik jarraitzen ba'dau... au da garantzirik aundiena dauana.

Martin'ek emon eutsan lenengo erantzuna: Negargarria da benetan Patxi'k esan dauana, naizta baldintzapean esan. Euskalkiak maite doguz eta euretan dago euskerea, guk maite dogun euskerea, eta zuk ilgo ba'litzaz, orrek garrantzi gitxi leukala diñozu. Baldintzapean? bai, baiña baldintzak euren esan naia dauke. Geroago argitu jakon au Patxi'ri: Nik au esango ba'neu: Patxi il arren, munduak jarraitzen ba'dau zer? Zuk zer esango zeunke.

Bigarren erantzuna Manu'k emon eban: Euskalkiak iltzea onartzea erri-ilketa edo "jenozidio" ikaragarria onartzea da.

AMAITZEKO...

Idaz-lan onetan agertutako gaiakaz naikoa argi ikusten dala uste dot batzar aren aria nondik nora joian. Ba-dago kaseten bat gauzak zeatzago ta argiago jakin nai dabezenetzat.

Dana dala, ordu bian esandako gauzak askoz geiago dirala ezin ukatu.

Eta zer? Onuragarria izan zan batzar ori?

Egia esan, olako eztabaidetara joatea ez jako iñori atsegin izaten, baiña gauza asko argitu zirala uste dot, argibide asko emon beintzat.

Gure aldetik ez dago eragozpenik Euskaltzaindiagaz alkar-izketa egiteko, eta orretarako joan giñan euren gizarte-etxera irailaren 8' an. Orretarako eskiñi gintzan Bergara'ko batzarrean, Manu'k itaun bateri erantzunez esan eban lez.

Beste alde batetik, eun gazte eta Iruña'n entzule ta euskeraz alkar-izketan izatea gauza pozgarria da. Bide orretatik joian an izandako beste itaun bat: Euskerazaintza'n gazte asko ete egozan. Asier'ek erantzun eban gazteak ba'dagozela Euskerazaintza' n eta geiago . ez izatea be ulertzekoa dala, ikaskintzako mailla guztietan batua erabilten dan aldi onetan.

Onuragarria izan dala mai-irtguru au uste dogu.

OLAZAR'tar Martin'ek